

## B2 MAILA

### 3. ZATIA

#### BAT-BATEKO ELKARRIZKETA

Materiala eman (argazkien orria).

- Ikasleei fitxak eman eta zer egin behar duten azaldu (elkarri begira egongo dira eta irakaslea pixka bat atzerago jarriko da).
- Fitxak aurrean dituztela, minutu erdi bat utzi pixka bat pentsatzeko.

Ikasleek jardun bitartean.

- Ikasleei egiten utzi, baina hizketan pasatzen duten denbora neurtu.
- Beharrezkoa bada, esku hartu, moztu, txanda aldatu.
- Behar izanez gero, beheko galdera osagarriak balia ditzakezu.


#### 124. ARGAZKIA:

## Zer egin horrelako eguraldi beroarekin?

Asteburua da. Eguraldi beroa, sargoria. Biharko tenperatura 42 gradukoa izango dela iragarri dute. Bihar, igandea, plan bat egin nahi duzue, baina zer egin horrelako beroarekin? Zer ez zenukete egingo? Zergatik? Fitxan ageri diren irudietan zenbait aukera dituzue erabakia har dezazuen. **Bion artean hitz egin, adostasunak eta desadostasunak adierazi eta adosten saiatu.**

#### GALDERA OSAGARRIAK

- Zein urtaro nahiago duzue? Zergatik?
- Zertan dira desberdinak astebururako planak neguan eta udan?
- Zer nahiago duzue, eguraldi hotza ala beroa? Zergatik?



## Zer egin horrelako eguraldi beroarekin?

